

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

363/2020 Foru Agindua, azaroaren 16koa, onesten duena Laudioko Udalarenak diren onura publikoko 73 zenbakiko "Larraño Handia" eta onura publikoko 74 zenbakiko "Larraño Txikia" mendien mugaketa eta mugarritzea

Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, Laudioko Udalak eskatuta, Laudioko Udalarenak diren onura publikoko 73 zenbakiko "Larraño Handia" eta onura publikoko 74 zenbakiko "Larraño Txikia" mendien behin-behineko mugaketa eta mugarritzea egin da, Mendiei buruzko Foru Arauaren kasuan kasuko artikuluekin eta, osagarri gisa, otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onartutako Mendien Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik, indarrean baitago Mendiei buruzko Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 2. puntuaren, azaroaren 21eko 43/2003 Legearen eta apirilaren 28ko 10/2006 Legearen arabera.

Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan -1909ko maiatzaren 5eko Errege Agindua behin betiko onaturikoa-, 73 zenbakiko "Larraño Handia" mendiak 85 hektareako azalera dauka eta 74 zenbakiko "Larraño Txikia" mendiak 52 hektarea.

Mugaketaren xede diren mendiak Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatuta daude, honako titulu hauen arabera:

Onura publikoko 73 zenbakiko "Larraño Handia": landa finka. Arraño izeneko mendi bat, Goyenuri kuadrilla. 308. liburukia, 15. liburua, 171. orria, 1051 zk.ko finka, Laudioko Udalaren alde.

Onura publikoko 74 zenbakiko "Larraño Txikia": landa finka. Arraño izeneko mendi bat, Larra kuadrilla. 308. liburukia, 15. liburua, 174. orria, 1052 zk.ko finka, Laudioko Udalaren alde.

Mendiei buruzko Foru Arauaren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2015eko urriaren 21eko ALHAOn (123. zk.), Laudioko Udalaren onura publikoko 73. eta 74. mendien mugaketa egoeraren adierazpena argitaratu zen, eta iragarki horren testua aldameneko ezagunei jakinarazi zitzaizen, gutun baten bidez hartu agiriarekin batera.

2015eko abenduaren 16an eta 23an eta 2016ko urtarrilaren 12, 13, 19, 21, 26 eta 28an egin ziren neurtze lanak, Maria Elena Vilches Plaza izan zela ingeniari eragilea, orduko aktetan jasotzen den bezala.

Neurtze lanak eta behin-behineko mugarritzea amaituta, espedientea jendaurrean jarri zen Laudioko udaletxeko bulegoetan, Mendien Erregelamendua zehazten duenez, hamabost egun balioduneko epean, interesdunek hura aztertu eta erreklamazioak egin ahal izan zitzaizkien, ikusgai jarri eta hurrengo hogeita hamar egunetan zehar.

Epe horri 2016ko maiatzaren 18ko ALHAOn (56. zk.) argitaratutako iragarki bidez eman zitzaion hasiera. Halaber, iragarki haren testua jakinarazi zitzaizen eskutitzez, jaso izanaren agiriarekin, mugakide ezagunei eta neurketa egintzara azaldu zirenei.

Jarritako epe horren barruan, Laudioko Udalaren erregistro orokorrean alegazio idazki hauek aurkeztu ziren:

Anastasio Muñuzuri Uribarrik, 2016ko maiatzaren 10ean.

Egoitz Mendia Isusik, Elena Isusi Gastakak eta María Jesús Isusi Gastakak, 2016ko uztailaren 10ean.

Bi erreklamazio horiek onura publikoko 73 zenbakiko "Larraño Handia" mendiaren mugaketari dagozkio, ez baitzaio erreklamaziorik aurkeztu onura publikoko 74 zenbakiko "Larraño Txikia" mendiaren mugaketari.

Abuztuaren 2an, mugaketaren ingeniari operadoreak aurkeztutako bi erreklamazioei buruzko txostena egin zuen, eta honako hau baloratu zuen:

Muñuzuri Uribarri jaunak eskatu du 73. zenbakiko mendiaren 1. bide tarteko 1. zenbakiko behin-behineko mugarría, mendi publikoaren ipar-mendebaldeko erpina adierazten duena, bere jabetzako bidearen eta mendi publikoaren artean dagoen bidearen gainean jar dadila. 2. zenbakiko mugarría, mendi publikoaren zati horretako ipar-ekialdeko erpina, bidearen gainean dagoenez, bi guneen arteko koherentziagatik, proposatzen da erreklamazioa baiestea, eta adieraztea Arabako Foru Aldundiak egokitutako bidea bi jabetzetarako zerbitzu bidea dela.

Isusi Gastaka ahizpek eta Egoitz Mendia Isasik eskatu dute beren jabetzako lurzatiaren iparaldeko muga (2. poligonoko 431, 1221 eta 430 zenbakiak) mendi publikoarekin, tarte horretan egokitzea Katastroaren egungo trazadurari. Erreklamazioa aztertuta, espedientean jasota dagoen txosten espezifikoan azaltzen diren arrazoiengatik, proposatzen da erreklamazioa ezestea.

Gainera, 73. zk.ko OPko mendian, bizitegi diren 10 okupazio daude, joan den mendearen hasierakoak eta erdialdekoak, eta trukeen bidez legeztatzeko izapideetan daude. Horrelako konponbideek epe luzeak behar dituztela ikusita, ez da komeni atzeratzea sine die mugaketaren onespena; beraz, okupazio horiek onespenean agertzen dira egungo egoeran. Jabetza egoera truke akordioaren bidez aldatzen den heinean, aldaketa horiek Mendien Katalogora eraman behar dira eta mendiaren ondoriozko mugaketa, Katastrora eta Jabetza Erregistroko inskripzioa.

2019ko urtarrilaren 4an, Mendi Zerbitzuak Laudioko Udalari baimena eskatu zion mugaketa eta mugarriztatzea onesteko foru aginduaren zirriborroari buruz eta, bereziki, erreklamazioetako bat baiesteko proposamenari buruz; adostasun hori 2019ko urtarrilaren 31ko sarrera datako idazki baten bidez jaso zen.

1067/2015 espedientean jasotako txostenak, neurtze aktak, planoak, erregistro topografikoak eta dokumentazioa aztertu dira, eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 27. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraitu.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Laudioko Udalarenak diren eta udalerrí hartan kokatuta dauden onura publikoko 73 zenbakiko "Larraño Handia" eta onura publikoko 74 zenbakiko "Larraño Txikia" mendiaren mugaketa eta mugarriztatzea, espedientean jasotako akta, txosten, plano eta erregistro topografikoaren arabera. Hauxe da deskribapena:

73 zenbakiko OPko mendiaren deskribapena:

Katalogo zk.: 73

Izena: Larraño Grande – Larraño Handia.

Udalerría: Laudio.

Jabetza: Laudioko Udala.

Onura publikoko mendiaren azalera, guztira: 62 ha 36 a 58 ca

Espezíea: *Quercus ilex ilex* artea eta *Quercus robur* haritza.

Perimetroa: 7.345,37 metro, 103 mugarrík definitua.

Bi bide zati edo esparruk osatua.

1. bide zatia:

1. esparruaren edo bide zatiaren mugak:

Iparraldetik: jabego pribatuak.

Ekialdetik: jabego pribatuak.

Hegoaldetik: jabego pribatuak.

Mendebaldetik: jabego pribatuak.

Laudioko Udalaren landa katastroko erreferentzia 1. bide zatiarena: 2. poligonoko 293 lur-zatia.

Azalera: 43 a eta 57 ca

Perimetroa: 272,73 metro, lau mugarrik definitua.

2. bide zatia:

2. esparruaren edo bide zatiaren mugak:

Iparraldetik: jabego pribatuak eta Arabako Foru Aldundiaren ondare mendia.

Ekialdetik: jabego pribatuak.

Hegoaldetik: jabego pribatuak.

Mendebaldetik: jabego pribatuak.

Laudioko Udalaren landa katastroko erreferentzia 2. bide zatiarena: 2. poligonoko 327, 364, 371, 373, 374, 377, 378, 379, 380, 449 eta 452 lurzatiak.

Perimetroa: 5.714,75 metro, 74 mugarrik definitua.

Barrendegiak (2. bide zatia):

1 zenbakiko barrendegia: Santa Ageda Baserria deritzo, Laudioko Udalaren landa katastroko 2. poligonoko 451 zenbakiko lurzatiak osatzen du. Azalera: 52.311,70 m². Celestino eta María Teresa Lazcano Gastacari aitortzen zaie edukitza.

Okupazioak (2. bide tartea)

1. zenbakiko okupazioa: Arraño 57. zk.

Jabea: Francisco Javier Eguia Otxoa.

Legezko egoera: Bere jabetzako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 128,00 m²

Okupatutako azalera: 5.422,40 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 6 mugarri.

2. zenbakiko okupazioa: Arraño 35. zk.

Jabea: José Moya Domenec.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 455,22 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 3 mugarri.

3. zenbakiko okupazioa: Arraño 35. zk.

Jabea: Francisco Uribarri Garay.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 326,44 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 3 mugarri.

4. zenbakiko okupazioa: Arraño 37. zk.

Jabea: José Vallejo Escobar.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza eta lurra. Trukea berak bakarrik erabil dezakeen mendiaren soberakina erregularizatzeko.

Okupatutako azalera: 55,22 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: mugarri 1.

5. zenbakiko okupazioa: Arraño 38. zk.

Jabea: Juan José García Gómez.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza eta lurra. Trukea etxebizitzarako sarbidea egiteko.

Okupatutako azalera: 939,96 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: mugarri 1.

6. zenbakiko okupazioa: Arraño 43. zk.

Jabea: M^a Luisa Ganzabal Unzaga.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 243,00 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 0 mugarri.

7. zenbakiko okupazioa: Arraño 44. zk.

Jabea: Josefa Gacio Gómez eta Jose Manuel Losada Bello.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 1.240,40 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 2 mugarri.

8. zenbakiko okupazioa: Arraño 45. zk.

Jabea: José Luís Expósito.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 1.468,99 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 6 mugarri.

9. zenbakiko okupazioa: Arraño 46. zk.

Jabea: M^a Luisa Arranz Zubiaur.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 1.520,50 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 9 mugarri.

10. zenbakiko okupazioa: Arraño 56. zk.

Jabea: J. Ignacio Arza Respaldiza.

Legezko egoera: Udalari erositako etxebizitza. Trukea baratzerako azalera erregularizatzeko eta etxea lasaitzeko.

Azalera propioa: 90,00 m²

Okupatutako azalera: 1.934,35 m²

Jarri beharreko mugarri kopurua: 5 mugarri.

Zortasunak (2. bide tartea)

Linea elektrikoen zortasuna:

1. linea

Deskribapena: Metalezko dorreetan oinarritutako goi-tentsioko 6 kablaren aireko trazadura.

Trazadura: Odeibartik Ugarterako bidegurutzetik eta Ugartetik Balintzara.

Luzera: 570 metro.

Zortasunaren titularra: Iberdrola.

2. linea

Deskribapena: Hormigoizko habeetan oinarritutako behe-tentsioko 3 kablaren aireko trazadura.

Trazadura: Larraño kaletik eta Landaluçetik Balintzara.

Luzera: 1130 metro.

Zortasunaren titularra: Iberdrola.

Uren zortasuna:

Hornidura hodiak.

Deskribapena: Edateko uraren hornidurarako hodia, Lujako biltegia ponpatutako igoera-
rekin eta grabitatez banatuta.

Trazadura: Lujako biltegitik Lujako auzora, Santa Ageda Baserrira eta Larraño kalera.

Luzera: 325,88 metro.

Zortasunaren titularra: Laudioko Udala.

Lujako biltegia.

Deskribapena: 45 m³-ko edukiera duen lur kotaren gainean eraikitako biltegia, ponpaketa
bidez elikatua Goienuritik.

Kokapena: Larraño tontorrean.

UTM Koordinatuak ETRS89: X = 500968 Y = 4777910

Okupatutako azalera: 58,61 m²

Zortasunaren titularra: Laudioko Udala.

Antenen zortasuna:

Deskribapena: Telekomunikazioen - telefonia mugikorraren antena.

Kokapena: Larraño gurutzeko iparraldeko hegalean.

UTM Koordinatuak ETRS89: X = 502557 Y = 4776765

Okupatutako azalera: 80 m²

Zortasunaren titularra: Retevisión I. S. A. U.

74 zenbakiko OPko mendiaren deskribapena:

Katalogo zk.: 74

Izena: Larraño Pequeño – Larraño Txikia.

Udalerria: Laudio.

Jabetza: Laudioko Udala.

Onura publikoko mendiaren azalera, guztira: 26 ha 38 a 20 ca

Espeziea: *Quercus ilex ilex* artea eta *Quercus robur* haritza.

Perimetroa: 2.679,96 metro, 43 mugarrak definitua.

Bide zati edo esparru bakarrak osatua.

Mugak:

Iparraldetik: jabego pribatuak.

Ekialdetik: jabego pribatuak.

Hegoaldetik: jabego pribatuak eta Arabako Foru Aldundiaren ondare mendia.

Mendebaldetik: A-625 errepidearen zortasun area.

Laudioko Udalaren landa katastroko erreferentzia: 7. poligonoko 193 eta 189 lurzatiak.

Zortasunak

Linea elektrikoen zortasuna:

1. linea

Deskribapena: Metalezko dorreetan oinarritutako goi-tentsioko 7 kableren aireko trazadura.

Trazadura: Larratik Santa Cruzera.

Luzera: 305 metro.

Zortasunaren titularra: Iberdrola.

2. linea

Deskribapena: Hormigoizko habeetan oinarritutako behe-tentsioko 3 kableren aireko trazadura.

Trazadura: Arantzik Lateorrorra.

Luzera: 330 metro.

Zortasunaren titularra: Iberdrola.

Uren zortasuna:

Hornidura hodiak.

Deskribapena: Edateko uraren hornidurarako hodia, Larrako Larrañotik ponpatutako igoe-rarekin eta grabitatez banatuta.

Trazadura: Berriotik Asudiorako errepidetik Larrako Larrañoko biltegia.

Luzera: 70 metro.

Zortasunaren titularra: Laudioko Udala.

Larrako Larrañoko biltegia.

Deskribapena: 11 m³-ko edukiera duen lur kotaren azpian eraikitako biltegia, ponpaketa bidez elikatua Larratik.

Kokapena: Larrako Larrañoko tontorraren iparraldeko hegalean.

UTM Koordenatuak ETRS89: X = 504058 Y = 4775672

Okupatutako azalera: 71,4 m²

Zortasunaren titularra: Laudioko Udala.

Bigarrena. OPko 73. zenbakiko mendian onartzea jabetza partikulartzat Santa Ageda base-riaren barrendegia eta "Arraño" ren okupazioen barruan berezkotzat legeztatutako eta deskribatutako azalera, hain zuzen, onura publikoko 73. zenbakiko mendi beraren 1. zenbakitik 10. zenbakira bitartekoak.

Hirugarrena. Baiestea Anastasio Muñuzuri Uribarrenek aurkeztutako erreklamazioa, baina ohartarazten zaio toki horretan dagoen bidea Foru Aldundiak egokitu duela eta bi lurzatietarako zerbitzua dela, partikularra eta publikoa.

Laugarrena. Ezestea Egoitz Mendia Isusik eta Elena eta María Jesús Isusi Gastakak aurkeztutako erreklamazioa, espedientean jasotzen den txostenean azaldutako arrazoiengatik.

Bosgarrena. Administrazio bidea amaitutzat adierazten da eta bide judicial zibila irekitzat.

Seigarrena. Mendiaren deskripzioan jasotzen diren datu berriak Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogora eraman daitezela, dagozkien idazpenak eginez, baita landa katastrora eta jabetza erregistrora ere.

Zazpigarrena. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea beren erreklamazioen baiespenak edo ezesprenak oinarri dituen txostenaren kopiarekin batera. Ebazpena Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari ere helaraziko zaio.

Zortzigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 16a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE